IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

EPE 2022
OPE 2022

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

OPE 2022

KIDEGOA/CUERPO: BIGARREN HEZKUNTZA / ENSEÑANZA SECUNDARIA

ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: FILOSOFIA

Erakunde autonomiadun
Organismo autónomo de
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. ARIKETA – LOGIKA-ARIKETA (2 puntu)

Eratorri "**q** ∧ ¬ **r**" zuzenean edo *reductio ad absurdum* erabiliz premisa hauetatik:

1. $r \rightarrow s$
2. $p \vee q$
3. $\neg (\neg p \rightarrow s)$

Justifikatu urrats guztiak.

EJERCICIO 1 – EJERCICIO DE LÓGICA (2 puntos)

Derive "**q** ∧ ¬ **r**" directamente o por el método de reducción al absurdo a partir de:

1. $r \rightarrow s$
2. $p \vee q$
3. $\neg (\neg p \rightarrow s)$

Justifique todos los pasos.

2. ARIKETA - HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEAREKIN LOTUTAKO GAIA (4 puntu)

Hurrengo testua eta horren gaia abiapuntutzat hartuta, planteatu bat edo bi saioren garapena ikasgelan, honako atal hauen bidez:

1. **Testuingurua: ikasgaia, maila eta gaia.**
2. **Garapena:**
   a. **Helburuak, gaitasunak eta edukiak.**
   b. **Metodologia, baliabideak eta jarduerak.**
   c. **Ebaluazioa: irizpideak eta tresnak.**

"Era berean, ekintzei dagokienez ere badira gehiegikeria, gabezia eta erdiko terminoa. Horrela, bada, bertutea pasioei eta ekintzei buruzkoa da; horietan gehiegikeria eta gabezia akatsak dira, eta erdiko terminoa, aldiz, laudatua eta arrakastatsua, eta bi ezaugarriok bertutearen berezkoak dira. Beraz, bertutea nolabaiteko erdia da, edo erdiko terminorantz jotzen du, behintzat. Gainera, huts egitea era askotan gertatzen da (gaizkia azkengabearena baita, pitagorikoek susmatu zuten bezala, eta ongia, mugatuarena), baina arrakasta lortzea era bakar batean (horregatik da erraza bata eta nekeza bestea, erraza ituan huts egitea eta nekeza bete-betean jotzea). Beraz, arrazoi horiengatik ere, gehiegikeria eta gabezia bizioarenak dira, eta erdikotasuna, bertutearena: *Gizakiak onak era bakar batean dira onak, gaiztoak era askotan.*

Beraz, bertutea nahita hautaturiko aztura bat da, guri dagokigun erdikotasunean datzana, arrazoiak eta gizaki zuhurrak erabakiko lukeenak zehaztuta."

(ARISTOTELES, *Nikomakorentzako etika,* 1106b)

EJERCICIO 2 - CUESTIÓN RELACIONADA CON LA INTERVENCIÓN EDUCATIVA (4 puntos)

Tomando como punto de partida el siguiente texto y su tema, plantee el desarrollo de una o dos sesiones en el aula. Desarrolle los siguientes apartados:

1. **Contextualización: asignatura, nivel y tema.**
2. **Desarrollo:**
   a. **Objetivos, competencias y contenidos.**
   b. **Metodología, recursos y actividades.**
   c. **Evaluación: criterios e instrumentos.**

"En las acciones hay también exceso y defecto y término medio. Ahora, la virtud tiene que ver con pasiones y acciones, en las cuales el exceso y el defecto yerran y son censurados, mientras que el término medio es elogiado y acierta; y ambas cosas son propias de la virtud. La virtud, entonces, es un término medio, o al menos tiende al medio. Además, se puede errar de muchas maneras (pues el mal, como imaginaban los pitagóricos, pertenece a lo indeterminado, mientras el bien a lo determinado), pero acertar sólo es posible de una (y, por eso, una cosa es fácil y la otra difícil: fácil errar el blanco, difícil acertar); y, a causa de esto, también el exceso y el defecto pertenecen al vicio, pero el término medio, a la virtud: *Los hombres sólo son buenos de una manera, malos de muchas.*

Es, por tanto, la virtud un modo de ser selectivo, siendo un término medio relativo a nosotros, determinado por la razón y por aquello por lo que decidiría el hombre prudente."

ARISTÓTELES. *Ética a Nicómaco*, 1106b

3. ARIKETA - TESTU IRUZKINA (4 puntu)

"Filosofiak ezagutza ororen ahalgarritasuna, printzipioak eta hedapena *a priori* determinatzen dituen zientzia baten premia du.

Aurreko guztia baino garrantzitsuagoa da ezagutza jakin batzuk esperientzia ahalgarri ororen alorra ere uztea eta adigaien bitartez, alegia, esperientzian beraiei egokitzen zaien ezein objektu eman ezin den gisako adigaien bitartez, gure judizioen hedapena itxuraz bere muga oroz goiti hedatzea.

Eta gure arrazoimenaren ikerkuntzak, bere garrantziagatik adimenak agerpenen arloan ikas dezakeen guztia baino askoz bereziagotzat eta azken asmoari begira bikainagotzat jotzen ditugun ikerkuntzak, sentsuen munduaz goiti doazen azken ezagutza hauetan dautza, non esperientziak ez gida-haririk, ezta zuzenketarik ere ezin duen eman, eta horregatik, beraz, edozertara ausartzen gara, erratzeko arriskua izan arren, hain premiazko azterketak ezbairen batengatik, edo gutxiespenagatik, edota axolagabekeriagatik ez uztearren. Arrazoimen hutsaren ezinbesteko arazo horiek *Jainkoa, askatasuna* eta *hilezkortasuna* dira. Eta Metafisika izena du bere gertakuntza guztiak aldean eramanik azken asmo gisa arazo hauek konpontzea duen zientziak".

KANT: *Arrazoimen hutsaren kritika*, (A3, B7).

Iruzkinean, gutxienez, honako elementu hauek jaso behar dira modu bateratuan:

- Egilea eta obra testuinguruan kokatzea.
- Testuan azaltzen diren arazoak eta eskaintzen den erantzuna.
- Tradizio filosofikoarekin duen lotura.

EJERCICIO 3 – COMENTARIO DE TEXTO (4 puntos).

"La filosofía necesita una ciencia que determine la posibilidad, los principios y la extensión de todos los conocimientos *a priori.*

Más importancia que todo lo anterior tiene el hecho de que algunos conocimientos abandonen incluso el campo de toda experiencia posible y posean la apariencia de extender nuestros juicios más allá de todos los límites de la misma por medio de conceptos a los que ningún objeto empírico puede corresponder.

Y es precisamente en estos últimos conocimientos que traspasan el mundo de los sentidos y en los que la experiencia no puede proporcionar ni guía ni rectificación donde la razón desarrolla aquellas investigaciones que, por su importancia, nosotros consideramos como más sobresalientes y de finalidad más relevante que todo cuanto puede aprender el entendimiento en el campo fenoménico. Por ello preferimos afrontarlo todo, aun a riesgo de equivocarnos, antes que abandonar tan urgentes investigaciones por falta de resolución, por desdén o por indiferencia. Estos inevitables problemas de la misma razón pura son: *Dios,* la *libertad* y la *inmortalidad.* Pero la ciencia que, con todos sus aprestos, tiene por único objetivo final el resolverlos es la Metafísica."

Kant, *Crítica de la Razón Pura*, (A3, B7).

El comentario debe incluir unitariamente, al menos, los siguientes elementos:

- Contextualización del autor y la obra.
- Problemas que se plantean en el texto y respuesta que se ofrece.
- Conexión con la tradición filosófica con la que dialoga.